



M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA ANDREA,
OIARTZUNGO UDAL AGURGARRIAREN
IDAZKARI NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko martxoaren 22an, beste batzuen artean ondorengo Akordioa hartu zuela:

“OIARTZUNGO IGERILEKU IREKIEN KONPENTSazio ONTZIEN ETA ITURGINTZA LANEN BIRMOLDATZE PROIEKTUEN ESLEIPEN PROPOSAMENA.

“Oiertzungo igerileku irekien konpentsazio ontzien eta iturgintza lanen birmoldatze proiektua” Toki Inbertsioetarako Estatuaren diru laguntza lortu zuenez, obrak burutu ahal izateko adjudikazio fasea martxan jarri zen.

Kontratu txikien moduan esleitzea erabaki zen, aurrekontua 24.444,23 €koa denez (BEZ kanpo). Ondoren, lau enpresa ezberdinei eskatu zitzaizen lan hauek egiteko proposamenak egin zitzaizen. Hauetatik bi (Jose Joaquin Etxebeste iturgina (Nikoi) eta Poliester Gabiria, S.A.k) ez dute azpikontratatzeko aukerarik, beraz elkarrekin aurkeztu dira Ekolan Obras y Servicios, S.L. enpresarekin batera.

Enpresek bidalitako eskaintzak ondorengo hauek dira:

Enpresak	Eskaintzak (BEZ barne)	Gonbidapen aurrekontua (BEZ barne)	Beherakada	%	Kontratututako langileria			Epea
					Enpresakoa	Inem	Guztira	
EKOLAN	26.796,00	28.355,31	-1.559,31	-5,5	5	0	5	2 hilabete
NIKOLAS URDANPILLETA	---		---	---				
BERNARDO ALBISU	---		---	---				2 hilabete

Eskaintza guztiak aztertu ondoren, Obrak eta Zerbitzuak Batzordeak egindako diktamenarekin adostasunean, lan hau Ekolan Obras y Servicios, S.L.enpresari (IFZ: B20668786) esleitzea erabaki da, aho batez, 23.100 €ko zenbatekoagatik (BEZ kanpo. Aplikagarria den BEZa %16a da) eta 2 hilabeteko epean, merkeena delako eta baldintzak betetzen dituelako. Esleipendunak 5 langile okupatuko ditu lanetan eta ez du kontratazio berririk egingo.

Toki Inbertsioetarako Estatuaren Diru-laguntza ordaintzeko kontu korrontea honakoa da: 21004481000200076557”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araber, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oiertzunen, bi mila eta hamarrekota martxoaren hogeita biau.

O.E.
ALKATEAK,

OIARTZUNGO UDALA

IDAZKARITZA

OIARTZUNGO UDALA